

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK ETA GIZA ESKUBIDEEN MEKANISMOAK *ikuspegi feminista batetik*

GIH & HITZARMEN BIKIAK

Women's Major Group

Garapen Iraunkorrerako 2030

Agendak, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) izenez ere ezagunak, mundu mailako 17 helburu jasotzen ditu, elkarki lotuak eta berariaz diseinatuak "ekintza plan bat aurrera eramateko eta guztientzat etorkizun hobe eta iraunkorragoa lortzeko". Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak onartu zuen 2015ean, eta asmoa da helburuak 2030erako betetzea.

EZPNH eta EESKNH hedadura handikoak dira, eta biek dituzte lotura argiak GIHen bidez aurre egin beharreko arazo sistemiko eta estruktural askorekin.

Ezinezkoa izango da garapen iraunkorra lortzea eta emakumeen giza eskubideak betearaztea, ez bagara gai gure giza eskubide guztiak erabiltzeko, eskubide ekonomikoak, zibilak eta politikoak barne.

Gaur egungo genero-desberdintasun estrukturalaren erroetan dauden arrazoi asko lotuta daude gobernuak eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen aurrerapenean eta GIHen Agendan izandako porrotarekin.

BA AL ZENEKIEN...?

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala egin eta legez lotesleak izango ziren hitzarmenen bidea zabaldu zenean, bi Hitzarmen Biki onartu eta garatu ziren: hain zuzen, Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Hitzarmena (EZPNH) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena (EESKNH). Giza Eskubideen Adierazpenak eta bi Hitzarmen Biki horiek osatzen dute Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna.

ZER DA EZPNH?

Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Hitzarmena (EZPNH) NBERen Batzar Nagusiak onartu zuen 1966ko abenduan. 1976ko martxoaren 23an sartu zen indarrean, eta orain arte 173 gobernuak berretsi dute. EESKNH berretsi duten gobernuak aldian-aldian txostenak aurkeztu behar dizkiote **Giza Eskubideen Batzordeari**, hark eskatzen duenean, normalean lau urtean behin. Batzordea aditu independentez osatuta dago, eta **Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Hitzarmeneko Lehen Protokolo Fakultatiboa** berretsi duten herrialdeetan norbanakoek egiten dituzten salaketak ere jaso ditzake.

ZER DIRA GIH-AK?

ZERIN DA GIH-EN ETA HITZARMEN BIKIEN ARTEKO LOTURA ETA INTERAKZIOA?

ZER DA EESKNH?

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena NBERen Batzar Nagusiak onartu zuen 1966ko abenduan. 1976ko urtarrilaren 3an sartu zen indarrean, eta orain arte 171 gobernuak berretsi dute. EESKNH sinatu duten gobernuak aldian behin txostenak aurkeztu behar dizkiote **Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeari (EESKB)**, normalean zortzi urtean behin. Batzordea aditu independentez osatuta dago, eta **Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmeneko Protokolo Fakultatiboa** berretsi duten herrialdeetan norbanakoek egiten dituzten salaketak ere jaso ditzake.





NORA JO DEZAKEZU?

MUGIMENDUEN AHOLKUAK

Emakumeen Talde Nagusiaren eginkizunetako bat da gizarte zibileko erakundeek –giza eskubideen alde egiten dutenek, garapen iraunkorrean oinarrituta eta arretea emakumeen giza eskubideetan jarrita– NBE-n parte-hartzea eta beren ekarpena egitea erraztea.

EZPNH

Eskubide Zibil eta Politikoaren Zentroa (EZPH-Zentroa) GKE bat da, gizarte zibileko erakundeek (GZE) laguntza eskaintzen diona, GZE horien egoera Giza Eskubideen Batzordean aztertu baino lehen, bitartean eta ondoren.

Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans eta Intersex pertsonen Nazioarteko Elkarte (ILGA), lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersex (LGBTI) diren pertsonen eskubide-berdintasuna lortzeko lanean ari diren tokiko eta nazioko erakundeen mundu mailako federazioa da.

EESKNH

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Sareak (EESK-Sarea) 280tik gora GKE, oinarritzko erakunde, gizarte-mugimendu eta aktibista lotzen ditu 75 herrialde baino gehiagotan, giza eskubideak eta justizia soziala guztientzako errealitate bihurtuko dituen mugimendu globala eraikitzeko.

IG-EESK aldaketa eraldatzailea sustatzen duen GKE bat da, giza eskubideen ikuspegiaren bidez injustizia sozial eta ekonomikoaren arazo endemikoak desagerrarazteko.

EZPNH

EZPNHren Zentroak gida bat eskaintzen du, gizarte zibileko erakundeek jakin dezaten nola har dezaketen parte Giza Eskubideen Batzordearen aurrean txostenak aurkezteko prozesuan.

ILGAk baliabide ugari eskaintzen ditu SOGIESC arloko giza eskubideen gaiekin lotutako azuaki hitzarmenetako organo desberdinen aurrean aurkezten dituztenentzat; baliabide horietako batzuk dira, adibidez, **Hitzarmenetako Organoen Auzi Estrategikoen Gida** eta **Hitzarmenetako Organoen urteko Txostenak**, eta hor, batzordeetatik kanpoko analisi bat aurki daiteke, SOGIESC auziei buruz.



KONTUAN HARTU BEHARREKO TRESNAK

EESKNH

EESK-Sareak eta **IWRAP Asia Pazifikoa** erakundeak eskuliburu bat prestatu zuten: **Emakumeen Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen inguruko salaketak, CEDAWren eta EESKNHren Protokolo Fakultatiboa erabiliz**. Eskuliburu hori oso gida praktikoa da CEDAW eta EESKNH erabiltzeko, eta informazioa ematen du eskubide ekonomiko, sozial eta politikoan aitortza eta inplementazioa eskatzeko erabil daitezkeen salaketa-mekanismoei buruz.

IGDESCek eta **Hamilton Lugar School of Global and International Studies** erakundeak egindako **txosten** batek nabarmentzen du nola erabil ditzaketen gizarte zibileko erakundeek hitzarmenetako organoen azken oharrak, emakumeen lurraren eta ondasunen jabe izateko dituzten eskubideak sustatzeko.

Gobernu askok sinatu edo berretsi zituzten nazioarteko mekanismo, hitzarmen nahiz tresna ugari, eta haietako asko gainjarri egiten dira eta elkarren osagarri dira. Baliatu gainjartze horiek gobernuen zure ikuspuntua helarazteko, ekintza aktibista eta konprometitua egiten ari zarenean.

Ikusten baduzu hitzarmen edo mekanismo zehatz batean ez dela aipamen espliziturik egiten, esaterako, LGTBI pertsonen buruz, edo sexu-langileei buruz nahiz emakume indigenei buruz, horrek ez du esan nahi gai hori jorratzeari utzi behar diozunik, edo hitzarmen nahiz mekanismo horiek erabiltzeari utzi behar diozunik. Zuk zeuk egin dezakezu zeure analisi feminista hitzarmen eta itunetako artikulua askotan, arazo intersektionalak sustatzeko edo zure lanaren parte diren emakumeen komunitate intersektionaleetan aplikatzeko erabil daitezkeen.

EZPNH

5. GIHan, “Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neskato guztiak ahalduntzea” jasotzen da, eta estu lotuta dago **EZPNHren** 3. artikuluaekin, hor argi ohartarazten baitzaie gobernuen “konpromisoa har dezatela gizon eta emakumeen arteko eskubide-berdintasuna bermatzeko, guztiak baliatu ahal izan ditzaten hitzarmen honetan jasotzen diren eskubide zibil eta politikoak”. Baina **EZPNHren** beste zenbait artikulua ere lot daitezke 5. GIHaren beste hainbeste helmugarekin. Esaterako, 2. helmugak honako hau dio: “Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria mota guztiak deuseztatzea eremu publiko nahiz pribatuan, barnean hartuta sexu-salerosketa, sexu-esplotazioa eta beste esplotazio mota batzuk”, eta, beraz, **EZPNHren** 7. artikuluaekin lot daiteke, hark tortura debekatzen baitu. Era berean, 5. GIHaren 5. helmuga hau da: “Emakumeen parte-hartzea eskubideak eta eraginkorra izan dadila bermatzea, bai eta eremu politiko, ekonomiko eta publikoetan erabakiak hartzeko maila guztietan lider izateko aukera-berdintasuna ere”; beraz, **EZPNHren** 25. artikuluaekin lot daiteke, pertsonen afera publikoetan parte hartzeko dituzten eskubideak deskribatzen baititu.

EESKNH

5. GIHak, “Genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neskato guztiak ahalduntzea” dioenak, berez, ez du emakumeek lanean eta enpleguan duten parte-hartzea aipatzen duen jomugarik eta adierazlerik. Hala ere, 8. GIHaren adierazle batzuen bidez honako hauek bultzatzen dira: “hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta iraunkorra sustatzea, eta orobat enplegu osoa eta produktiboa, eta lan duina guztientzat”. Era berean, hauek aldarrikatzen dira: balio bereko lanerako soldata-berdintasuna, lan derrigortua eta eskalotza modernoa debekatzea, lan-eskubideen babesa, eta laneko giro seguruak eta babestuak sustatzea guztientzat. Hala ere, **EESKNHren** hainbat artikuluk sakonago deskribatzen dute lanerako eskubidea, eta hor sartzen dira, besteak beste, gaikuntza eta prestakuntza ematen duten programa teknikoetan eta lanbide-heziketakoetan sartzeko eskubidea (6. artikulua), sindikatu bateko kide izateko eskubidea (8. artikulua), eta gizarte-segurantzaz izateko eskubidea, erditu aurreko eta ondorengo aldia barnean hartuta, haurdun dauden pertsonentzat (10. artikulua).